

gaurkoan

Joseba Intxausti (*)

puntaren
puntan

Biba Frantzia, gora frantsesa!

Gaur, 1989ko Uztailaren 14ean, ospatzen du Errepublikak Frantsesak bere Festa Nazionala. Aurten, gainera, eta egun honetan, betetzen da, hain zuzen, Festa horrek gogoratu nahi duen gertakariaren bigarren Mendeurrena: 1789ko Uztailaren 14ean hartu zuen Pariseko herriak Bastillako presoondegia, milaren bat herritarrek bertako zantzaile gutxi haiek menperatu eta preso zeuden sei-zazpi lagunak kalera libre ateratzean.

Gertakaria, egia esan, ez zen Iraultzaren handietakoa izan, baina Iraultzako balorik es-timagarrien sinbolo bilakatu zen, ondorengo errepublikazaleen oroimenean. 1880an Errepublikaren Festa Egunizat hartu zen, azkenik, Uztailaren 14a.

Uztailaren 14a ala Abuztuaren 4a?

Aurtengo urte honetan behin eta berriz gogoratzen dira Iraultzako data sonatuak, eta zer esanik ez Frantziako egunkarietan. Hala ere, beldur naiz oporaldian etorriko zaigun Abuztuaren 4/5eko gau gogoangarria ez ote zaigun galdu samartuko. Nolanahi ere, Uztailaren 14ak baino ondorio luze eta sakonagoak izan zituen data horrek: Iraultza Frantsesaren obrarik handienaren sintesia da gau hartako lege-multzoa.

Askatasuna, Berdintasuna eta Anaitasuna-ren bandera iraultzaile lege-erabaki gutxi batzuetan bildu zen Abuztuaren 4/5eko gauean. Estatu Nagusiak Asanblada Nazional bihurtu zirenean (Ekainaren 17an) egindako iraultza politikoari, Abuztuaren 4ean iraultza soziala gehitu zitzaion: pribilegioak, hamarrenak eta jaun-eskubideak abolitu egin ziren; hiritarren eskubide berdintasuna legeztatuta eta «probitzia» eta hirietako eskubide bereziak deuseztatu ondoren, Estatu-Nazioaren batasun juridikoa segurtaturik geratu zen.

Asmo eta xede sozio-politiko hauek egin-zetara eramatea izan zen ondoko urteetako ahalegina, bai boterearen irabazle gertatu zen burgesiarentzat eta baita galtzaile suertatu ziren proletariarentzat ere. Izan ere, unean uneko gertakari puntualen tamaina, hala-koetan iriaktiko etorkizun-ahalbideek neruzten dute, egiaz, gertakariak beren soiltasunean edo bertako gordintasunean zekarten uneko ez-tanda baino ibilkizuntzat irkitzen zuten geroko bidea zen haietan zinez baliokoena. Hortxe dago, hain zuzen, Bastilla-ren eta Abuztuaren 4eko gertakariaren arteko alde handia.

Oro har, gertakari haien luzaroko balorazio-erizpide horrek balio badu, Hexagonoko hizkuntz historian Iraultza hark urrutitako ideia eta asmo herri(tu)ak ezagutu eta epaitzeko ere gehiago balio du. Hizkuntz politika ez zuen gertakari sonaturik izan, baina horretaz erabakitakoak ondorio luzeak izan ditu gero.

Iraultzaren hizkuntza(k)

Iraultzak gizarte-herriak irakiten jarri zituenean, komunikazio politikoaren beharra areagotu egin zen herri eta hiritarren artean. Baina Hexagonoak ez zuen artean guztientzat *lingua franca* zen hizkuntza bakarrik. Gu-txiago, guztien ama-hizkuntza bakarrik. Paris-eko asanbladariak aipatu izan zituzten datuen arabera, 27,5 milioi hiritarretatik 12 milioik bederen ez zuen frantsesa ezagutzen eta/edo hitz egiten.

Iraultzak herritarra izan nahi zuen heinean, ezinbestekoa gertatu zen egoera soziolinguistikoi aurre egitea, edo hizkuntzen komunikazio-mugei irtenbideren bat eskaintzea. Premiek eta ezinek zirikatuta piztu ziren (lehenengo aldiz halako modu sozial eta politikoan) hizkuntz arazoaren inguruko praxi eta ezta-baidak.

Girondarren federalismo politikoaren barnean edo inguruan «federalismo linguistikoi»-ohartu bat jaio zen. Erregimen Zaharrean azken mende terdian gero eta indartsuago agertu zen hizkuntz zentralismo eraberdintzailearen aurka eta iraultzaile jakonbindarren ideien kontra, hizkuntz federalismoak berreskuratu egin nahi izan zituen bizitza publiko-rako herritarren hizkuntzak. Proiektu politiko-linguistikoi honek izan zuen bere formulazio teorikoren bat eta eske sozialik ere, Altsaziako aleman hiztunen artean bereziki, baina teoriatan ez baizik Iraultzaren halabeharrezko paxi politikoetan ikusten da zenbait-erimoko pisua izan zuen harreman politiko eta instituzionalen herritarren hizkuntz ohitura ez-frantsesek.

Federalismo linguistikoiak praxi bezala bizirik iraun zuen bitartean (1789-1793), Erregimen Zaharrean zenbait portaera gaitunditua nahia agerikoa izan zen (herri konkistatuei frantsesa ezartzeko Luis XIV.aren jarrera hura, adibidez). Eta ez herritar ez-frantsesen artean bakarrik, baita Iraultzako gidarietan eta zenbait lege eta erabaki politikoetan ere. Lehen aldiko giro honetan emandako aurrera-pauso batzuek modernotasun nabaria izan dute, gaurko gure kezketatik begiratueta.

Agiri ofizialen eta jendarteko dei politikoan itzulpena izan zen lehen arazoa. Han-hemenka, Departamentuetan egin ziren lehenengo itzulpen horiek, baina laster ikusi zen lan haien batasun-beharra. Premia honi erantzunez, itzulpen-bulego nagusi bat sortu zen Parisen (1790eko Urtarrilean). Departamentuetan eta Parisen burututako lanetatik hainbat testu iritsi da gure eguneraraino, baita euskaraz ere. Bretoierak, okzitaniarrek edo euskaraz zeregin sozial berrietara iristeko aukera izan zuten hilabete haietan, Iraultzako propaganda-eginkizunetan.

Frantsesa, hizkuntza estatu-nazionala

Iraultzako ideien zabalkunde-gogoia larria izan zen lehen hilabeteetan: Iraultzaileek eritzi publikoa landu eta moldatu nahi zuten, jendearen borondatea irabazi, beren proposamen politikoak zabaldu eta herritarren baitan itxarokizun politikoei haize eman.

Berehalako eritzi publikoaren leialtasuna irabazi eta jendartean mentalitate errepublikazaleak segurtatzeko, propaganda-lanei eta eskolagintzari leku handia eman zitzaion, eta hori dena aurrera ateratzen ahal izateko, jokabide politiko-linguistikoiak berreraikitzea nahitaezkoa gertatu zitzaion Errepublikari.

Bestealde, lehen urteetako Iraultzak oso gogotan zuen Frantziari eskola-molde berri bat asmatu, eta berori herri eta herriska guztietara zabaldu beharra. Frantziako lehen mailako irakaskuntzaren legezko plangintza Iraultzari zor zaio; egia da, ondoko urteetan (1794-1798) pot egin zuela asmo on hark, baina orduan marraztutako lerro nagusien barnean burutuko zen, ondoko mendean (Jules Ferry-rekin batipat: 1880-1833), eskolagintza frantsesa.

Iraultzak, bere Eskola-Legean (1793-Urria-21) garbitasun eta bakartasun osoz ezarri zuen hizkuntza frantsesaren beharra: haur guztiak ikasi beharko zuten *hizkuntza frantsesa mintzatu, irakurri eta idazten*. Arau hau, eskolagintza bera bezalaxe, bete eta gauzatzeko ez zen samurra gertatu; baina eskola-hizkuntzaren arazoa Dekretu hark definitu zuen. Brunot historiariari honela ikusi du Lege haren alantzia: «Azpimarra dezagun hizkuntzaren irakaskuntzaren irakaskuntzari ematen zaion leku bikaina. Berau da aipatzen diren gai gutxietako bakar bat. Badu federik pentsamendu frantsesaren balio hezitzailean; izpiritu nazionalaren emaitza da hizkuntza, baina, bestealde, izpiritu hori bere askatasunean eta bere indarrean eratzen laguntzen du hizkuntza honek».

Iraultza Frantsesak ongi ulertu zuen Estatu-Nazio berria boteretik ingi eta gidatzeko, hizkuntzaren arazoa nola eraman behar zuen. Erregimen Zaharreko politika jakin bati segida emanez eta Estatu-Nazio burges eta zentralista eraikitzeko frantsesa aukeratu zuen (gainerako hizkuntzen kaltetan, noski) tresnarik egokien-tzat. Idatzi izan den bezala, «oinarriak jarritu zeuden, eta bultzada, emanda. Frantziako I.aren, Richelieu-ren, Colbert-en joerak, doktrina bihurtu ziren, eta Estatuaren doktrina. Hizkuntzak nazionala izan behar zuen eta nazionalitatearen funtsezko osagarrietako bat izan. Bere betekizuna bete zezan, Estatuak bere laguntza zor zion».

(*) Idazlea

Udako zurrunbiloa

Udarekin batera badatozkigu arrapaladan urteroko derrigorrezko ekitaldiak, ikastaroak, udako unibertsitateak, mintegiak eta hitzaldiak, eskaintza turistikoak eta, lasti but not least, egunkari eta aldizkari guztietako uda eta aisaldi gehigarri itogarriak. Urte urte errepikatzen dira topik berdinak eta garaiki eskeintzen duen berunezko sargoriari gaineratzen zaio «famatu» eta hain «famatu» ez direnen opor-gorabeheren lurrin beroa.

Mundu guztiko «oin zikinak» Iruñeara biltzen dira, peregrinaje honen zioa oso garbi ez badute ere, bizitza osoan Hemingway nor izan zen entzuteke, baina dutxatu gabe, ez bada ardotan, kalean txisa egiten eta lurrean ez-tanda irauteko borondate argia erakusten dutelarik, hemengo babalora batzuk sanferminak «oso jai jatorrak» direla sinesten ahalegintzen diren bitartean.

Aldi berean, beste babalora batzuk amaierarik gabeko ikastaro, ikastaldi eta unibertsitaldi andana asperrigarrin sartzen dira. «Curriculum vitae» dire-lakoen edergarri eta apaingarri gertatzen diren titulu eta asistentzi-agiriaren biltzaile amorrutu hauek urtean zehar ikasgeletan esaten diren huserria akademikoak berdinak entzuteko biltzen dira, alde bakarra, baten bat izatekotan, praka motzetan dago diferentzia bakarra eta, jakina, pairatzen duten tenperaturetan.

Euskal Herri sufritu honetan loratzen diren hainbat eta hainbat «snob» entzat ere garai egokia dugu udako berroaldi hauek. Etxeko tokadiskotan Ana Belen edota Duncan Dhu besterik entzuten ez duten horterak jazzaile amorrutuak bihurtzen dira hirir egunez, «lo de ayer en Anoeta demasie, tú, estaba todo el personal, ¡Que modernez, así da gusto!». Bere aldetik, El caserío zarzuela bera ere inoiz entzun ez dutenek ipurdia galitzen dute «Quincena Musical» delakona sarrera bat lortzeko, «porque es una maravilla, oye tu, vivir en este Sanse que es la capital de la cultura. Que guapo/a has venido hoy potxolo/a!».

Ai ene! Pakea nahi dut, pakea. Eta ixiltasuna lehenengo elurrak ea noiz datozten zain egoteko. Apirila ezezik uz-taila eta abuztua ere bait dira, izan, hilerik krudelenak.

Jon BASTERRA

hemeroteca

Impunidad y democracia

(José Aumente, «El Independiente», 13-7-89)

Aquí, en nuestro país, falla rotundamente la democracia desde el momento en que se actúa desde el poder con la casi más absoluta de las «impunidades». Y con impunidad, no hay democracia. Con impunidad siempre cabe la posibilidad —o mejor, la tentación— del juego sucio y, sobre todo, la facilidad para aprovecharse de alguna de las oportunidades que al poder —cuquiera que sea el escalón que ocupa— se le vienen a las manos. Han sido muchos, y siguen sucediéndose todos los días, los «escán-

dalos» públicos que saltan a los medios de comunicación durante uno o dos días, y después quedan «enterrados» sin que después se vuelva a saber nada más de ellos. Jamás se acepta una «comisión de investigación» que lo esclarezca y exija las responsabilidades; jamás se cesa a alguien por gestiones que puedan ser más que dudosas. Los nombres, las circunstancias, los beneficios y los despilfarros están en boca de la mayoría de los ciudadanos. «Y no pasa nada». Las cloacas, los desagües, los sobornos y los «fondos reservados» gozan de la suficiente cobertura gubernamental como para actuar como desodorantes. Se llaman «reprivatización de Rumasa, edificio Presidente, Canal Sur, GAL, recalificaciones de terrenos influenciadas privilegiadas, etc., etc.,

etc...» y jamás desde el poder, se ha movido un dedo por hacer luz o exigir «responsabilidades». Alfombrar y tupidos velos: el poder se niega a «darse por enterados».

El salón y la cocina

(Carlos Pérez Uralde, «Deia» 13-VII-89)

En las casas de rancio abolengo era costumbre que el servidumbre comiera en la cocina mientras los señores y sus invitados lo hacían en el salón. Era una manera de dejar bien claro el lugar que ocupa cada uno en la escala social y de demostrar que las diferencias entre los habitantes de la casa también tienen que ver con el mantel bordado y el tapete de plástico. Pues bien, algo muy parecido va a ocurrir la noche

del 14 de julio en la mansión del señor presidente de la República francesa, Francois Mitterrand: mientras a su mesa van a sentarse los jefes de Estado o de Gobierno de los siete países más ricos del planeta, los representantes del

Tercer Mundo en las conmemoraciones de la Revolución de 1989 tendrán que conformarse con cenar en la más modesta mesa del señor primer ministro. Como metáfora del estado del mundo, la decisión de Mitterrand es impecable.

